

Izaskun Basterretxea | **BILBO**

Makina bat estualdirako behar-beharrezkoak dira komunak; eta urrin barik, bertan behar izaten dira askotan. Hainbat anekdota egongo dira horren inguruan, nahita askok ez kontatu.

Bilboko uriburuan 1990ean erabagi eben eskusau publikoen sarea aldatzea, zaharrak kendu eta ordezkioak ipinteko plana egitea; eta Udaleko iturrien arabera, «hobetu» egin da eskaintza azken hamar urteotan. «Antxinako komun gehienak, seguru-erik sasoi bateko pentsakera-gaitik izango zan, lurpean edo baztar ezkutuetan egozan. Hori dala eta, irol asko segurtasun gitxiko lekuetan egoazan, zikin, eta jenteak apurtu egiten zituan». Eta holan, antxinako gehienak kendu egin zituen, Arenalekoa, Casildakoa, San Pedrokoa, Gran Viakoa eta plaza eliptikokoa, adibidez.

Zaharren artean bakarra dago zabalik gaur egun, Esperantzakalean, pelotalekuaren alboan. Eta laster barritu egingo ei dabe, instalazino aurreratuagoak ipinteko. Hortik aparte, 12 komun publiko dagoz uriburuan, eta laster, sei ipiniko ditue. Asteotako baten, hiru: Europa eta Casilda parkeetan, eta Uribitarte pasealekuan (Pio Baroja plazan). Eta hemendik zati batera, beste hiru: Zorrotzan, Errekalden eta Naja pasealekuan.

Bakarrik garbitzeko sistema erdi-automatikoa izango dabe horrek komunok, eta herritarrek doan erabili ahal izango ditue. Michel Plante Systemes enpresak egingo ditu, eta antzerako bost martxan dagoz gaur



XOUSE SIMAL
ANTXINAKOA. Antxinako komun publikoen artean bakarra dago zabalik, Esperantzakalean.

Komuna, mesedez

LASTER, 19 IROL. Gaur egun, 13 komun publiko dagoz Bilbon, eta laster sei ipini behar ditue, horreetako hiru asteotako baten

egun: Etxebarria parkean bi, eta bana Europa, Eskurtze eta Casilda parkeetan. Holako komun bakotxaren mantenuak eta garbitasunak 1.500.000 pezetako gastua sortzen dau urtean.

Udaleko Osasun sailak holako komunak ipiniko ei ditu aurrerantzean be bai. Izan be, «herritarrak gustura dagozala erakusten dau holako irol bakotxa egunean 50en batek erabilten dabela jakiteak, udazkenenguan, eta gitxien erabilten daben sasoi da hori».

KOMUN BARRIAK

Asteotako baten, laster, Europa parkean, Casildan eta Uribitarten ipini behar ditue eskusauak

Zazpi lekutan, 25 pezetan

Orain dala urte batzuk ipinitako zazpi komun, ostera, automatikoak dira eta ordaindu egin be-

har da sartzeko, 25 pezeta. Casillan, Indautxun, Botikazarra erriberan, Errekaldeko plazan, Campo del Volantin pasealekuan, Lehendakari Agirre etorbidean (San Pedro plazaren parean) eta Sarrikoko parkean dagoz. Komun horreen mantenuak eta alokairuak ez deusie Udalarik gasturik sortzen. Izan be, mantenuaz arduratzen dan enpresari kalean publizitatea ipinten izten deutso Udalak. Eta egunean 30en bat herritarrek erabilten dabe irolotako bat.

AGENDA

BARAKALDO

Antzerkia: *Underground*. Gaur, 20.30etan, eta bihar, 20.00etan, Barakaldo Antzokian. Markeliñe taldea.
Bertso saioa: Xabier Amuriza, Oihane Enbeita, Jexux Mari Irazu, Mañukorta. Biher, Integrazino Zentroan, 19.30etan.

BASAURI

Korrika Kulturala. Euskal Azoka: Gaur, goizeko 09.00etatik aurrera, Solbarria plazan. Euskulagintzak eta bertako produktuak.

BILBO

Musika: Sagarroi. Gaur, 22.00etan, Kafe Antzokian.
Musika: Los Chinberos. Gaur eta bihar, 18.00etan, Bilborock aretoan.
Antzerkia: *Pinotxo*. Biher, 18.30etan, Kafe Antzokian. Antzezkiuzuna.
Korrika Kulturala: Haik Hor, Pam. Gaur, Zorrotzako institututan, 19.00etan.
Dantza: *10&10 Danza*. Gaur eta bihar, La Fundicion aretoan, 20.30etan.
Erakusketa: Rafael Zabaletaren (1907-1960) pinturak. BBKren erakusketa aretoan (Gran Via, 32), apirilaren 16ra arte.
Erakusketa: Plasticman. Iñaki Larrinberen lanak, gaur arte, Bilbao Arte aretoan.


ERANDIO

Korrika Kulturala. Antzerkia: *Trabena espektakulo*. Gaur, Altxaga ikastolan, 17.00etan. Goaz taldea.

SESTAO

Diapositiba emonaldiak: Mendi Astea egitarauaren barruan, diapositiba emonaldi bi gertatu ditu Angela Figuera Institutuak. Martiaren 26an, Eneko Pouren proiektzioa emongo dabe; eta, martiaren 27an, Juanjo San Sebastianena. Euskeraz izango dira biak, 15.30etik 17.20ra, institutuan bertan.

- 1 Arbërishtja
- 2 Katalana
- 3 Serbokroaziera
- 4 Friulera
- 5 Grekoa
- 6 Ladinoa
- 7 Okzitaniera
- 8 Sardiniera
- 9 Esloveniera
- 10 Galiziera
- 11 Frantzesia
- 12 Euskara
- 13 Britainiera
- 14 Korsikera
- 15 Daniera
- 16 Alemana
- 17 Frisiera
- 18 Nederlandera
- 19 Irlandako Gaelikoa
- 20 Eskoziako Gaelikoa
- 21 Kornuallesera
- 22 Franko Probentzala
- 23 Galesera
- 24 Eskoziera
- 25 Aromaniera
- 26 Pomakiera
- 27 Turkoa
- 28 Serbia
- 29 Luxenburgera
- 30 Fransch
- 31 Seeltersk
- 32 Oit Hizkuntzak
- 33 Asturiera
- 34 Mazedoniera
- 35 Arbëror



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA HIZKUNTZEN URTE EUROPARREAN EUSKARAREN ALDE



Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila